

Proiektua aurrera eramateko, funtsezkoak izango dira beste enpresa batzuekin hitz egitea, hauek gurekin lan egin dezaten sentsoreak egiteko, eta online denda bat diseinatzea, polita, ikusgarria eta erraza sartzeko. Gure helburua da denek arazorik gabe sartu ahal izatea. Era berean, sentsore eta arropa adimenen mundua ikertu behar dugu, lehen pausuak emateko. Funtsezkoa da bezeroei egokitzea, haien kexak entzutea eta hobetzen saiatzea. Online dendako koloreen kontrasteak eta letraren tamaina ikusgarria izatea garrantzitsua da, baita ordainketa metodo desberdinak integratzea ere.